

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak funtzionario izendatu ditu 2017ko EPEan plaza lortutako 20 pediatra

Lehen Arretako taldeetako pediatriako 17 postu eta Ospitalez kanpoko Larrialdietako Zerbitzuko 3 postu dira, Iruñeko San Martin Doktorea zentroan

Astelehena, 2018.eko azaroak 12

[Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) gaur, astelehena, azaroak 12, argitaratu da 2017ko Enplegu Eskaintza Publikoan plaza eskuratu duten pediatriako 20 profesional izendatzeko ebazpena. Lehen Arretako taldeetako 17 postu eta Ospitalez kanpoko Larrialdietako Zerbitzuko 3 postu dira, zehazki Iruñeko San Martin Doktorea zentroan. Gaur izendatutako 20 pertsonak hilabeteko epea dute plaza hartzeko eta lanean hasteko.

Lehen Arretako pediatriako 17 plaza osasuneko oinarrizko zona hauetakoak dira: Artaxoa, Buñuel, Zarrakastelu, Cintruénigo, Corella, Lizarra, Lodosa, Iruña (Errotxapea), Doneztebe, Tuterako Ekialdea eta Ultzama (Elizondorekin partekatua), oinarrizko zona bakoitzeko plaza bat; eta San Adrián, Valtierra-Cadreita eta Azkoién, bakoitzean bi plaza.

Gainerako hiru plazak Iruñeko Ospitalez kanpoko Larrialdietako Zerbitzura esleituta daude, San Martin Doktorea zentroan.

Lehen Arretako plaza huts guztiak

Gaur argitaratutako 20 plazaren esleipenarekin eta egonkortzeko 2018ko hurrengo EPEarekin, Osasun Departamentuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (O-NOZ) Lehen Arretan orain arte hutsik zeuden pediatriako ia plaza guztiak beteko dira.

Egonkortzeko 2018ko EPEa uztailan onartu zen, eta, bertan, pediatriako 24 plaza sartzen dira: horietako 21 Iruñeko osasun-eremuan (horietako 2 OKLZn), bi Lizarrako eremuan eta bat Tuterako eremuan. Plaza horien deialdia 2019ko hasiera aldera egitea aurreikusten da.